

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA -

1. Zer gizon zen Leon?
2. Abajari ona zuena Leonek
3. Orainko sendatzaileak zer erranen zitoten Leonen.

TABAKO BELHAR TIZANA 1

Bainan gero hatik, hasi balinbazen, hasi zen! Gostu hartu gure gizonak. Bokaleko<sup>1</sup> ximinea iduri zuen haren ahoak: egun guzia sutan. Hastean, ez zuen planta izpirik. Jaun Piroa bezen lodiko zigarretak egiten zituen, turruputun<sup>2</sup> itsusi batzu, adarrak alderdi guzietarat zoazila. Nago, sei hilabetez, hertze pullit hetarik bat erre othe duenez bururaino? Leher egiten zioten bethi, bide erditan. Eta orduan, kautera<sup>3</sup> bide bazterean bezala, paper peaxu emaiten artzen zitzaizoten, bustiz, bustiz!

Bainan ari bethi, bethi ari, futxo! Eta, hastean, haurrek hantzen duten aphoa artzen den bezala, pafa pafa pipatzen arizan ondoan, hor, ikasi zuen frango pulliki. Tabakoak horitu erhi batzu erakusten zituela, -soldadoek beren gerlako jauriak bezala- erraiten zuen, maltzur maltzurra: "Hain berant hasirik zuela bere dolu guzia... Jakin izan balu zoin goxo zen pipatzea! Bisaia!"

Ari zen beraz Leon, ari bethi, eta tabako saltzaileak erostun hobeagorik ez zuen.

Hor, heldu da gerla. Familia eder baten aita baitzen, Leon etxean gelditu zen, gerlarat joan gabe. Etsai itsusia bere xixparekin ezin errez, erretzen zuen... zigarretaz leherra, sekulan baino gehiago.

Ba, bainan gero, tabakoa, belharra, kariotu, xuhurtu<sup>4</sup>, agortu. Espainiatik heldu zen oraino puliki, haste hartan; bainan, gero, Españolek Alemaneri emaiten ziotelakotz, edo kanbioa demuntretan gora joan zelakotz, Espainiatik deus guti baizik ez heldu. Eta, Leon, ixtant oroz, han zagon, bere erhi horitueri begira. Gaixo erhiak! Zer pairatzen ahal zuten! Eta Leonek? ez othe zuen pairatzen? Xakhur ihiztorra erbiari bezala, an zagon, zigarro usain bat noiz eta non sendituko zuen, harat jauzian joaiteko, battoren eske, edo bederen usain goxo demonioaz sudur xiloen bethetzeko!

Oro tabako belhar ziren orduan. Artho-bizar, haitz-hosto, aisuna, sakelako errhauts guziak on ziren. Badut uste kafe errhautsa ere baliatu zen, etxek'andreari ebaska.

Bainan, nork iraun hala, Jainkoak mirakuilu bat ez balinbazuen egiten? Eta mirakuilua egin Jainkoak.

Egun batez, hor, aste baten porroska<sup>5</sup> tzar baizik ez zuelarik gehiago Leonek, Otxagabiako Español adixkide batek ekartzen dio, eta ixilka saltzen, 25 liberetan, tabako hosto bat gaitza, kiloa bederen pisu zuen hostoa! Leonen loria! Sukaldean nehor ez izanez hain xuxen, dantzari hasi zen, hantxet, tira-ahala, dantza-jauzietan. Dolu zuen Español begitarte beltza joaiterat utzirik, bi musu hari eman gabe.

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. Le her egiten zitoten 32. Berjen zit zitoten  
33. Hasi zen 34. Dolu zuen.  
31 UKAN - Conj. à double complément  
Indicatif Imparfait.  
Hari = à lui

- Nik nion = Je le lui avais
- Zuk zinion = vous - " - aviez
- Harek zion = il - " - avait
- Guk ginion = nous - " - avions
- Zuek zinioten = vous - " - aviez
- Heiek zioten = ils - " - avaient

32. IZAN - Régime Ind. Indic. Imparf.  
Hura zen = il était

- Hura (lui) zitzaion (à moi) = il m'était
- " zitzaizun (à vous) = il vous était
- " zitzaion (à lui) = il lui était
- " zitzaizun (à nous) = il nous était
- " zitzaizuen (à vous) = il vous était
- " zitzaion (à eux) = il leur était

33. IZAN - Indicatif Imparfait

- Ni nintzen = j'étais
- Hi hintzen = tu étais
- Zu zinen = vous étiez
- Hura zen = il était
- Gu ginien = nous étions
- Zuek zinezten = vous étiez
- Heiek ziren = ils étaient.